

MELOI SALTZAILEA

# Zedarriak



JUNE FERNANDEZ

**B**izitza erdigunean jartzeko abagunea ikusi genuen feministok zein ekologistok Covid-19 pandemia garaian. Ez ginen inozoak, bagenekien boteretsuak eta herritar asko gustura itzuliko zirela betiko normaltasunera. Bereziki, konfinamendu samurra pasa zutenak haien txaletetan edo luxuzko baserrietan.

“Kaka ongarri bihurtu” erreportajea publikatu nuen orduan ARGIAren Gakoak aldizkarian. Esperientzia komunitario inspiragarriren bat jaso nuen, baita etxeko langile eta zaintzaile egoiliarren muturreko esplotazio egoerak ere. Bai, dirudunen txaletetan edo luxuzko baserrietan lan egiten zuten horiek. Bada, bost urteren ondoren, mundua are kakaztuago dago.

Donald Trump eta Javier Milei buru dituen amesgaiztozko erreakzio belizistaren testuinguruan, jakin dugu Euskal Herriko enpresariak Zedarriak foro ekonomikoan “defentsaren industria” suspertzea proposatu dutela, Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin oniritziarekin.

“Euskal Herria PostCovid-19” izeneko manifestua sinatu zuten unibertsitateko irakasle eta ikerlariak “Armagintza industria ez da bide(zko)a” manifestua zabaldu dute orain, gerrako industria indartzeak dituen inplikazio etiko, ingurumeneko, ekonomiko eta sozialak salatzen, eta eredu ekonomiko bidezko eta jasangarriagoa aldarrikatzeko.

Bestetik, martxoaren 30a etxeko langileen nazioarteko eguna izan da, eta Emakume Migratu Feministak Zaintzaile Soziosanitarioak elkarteak komunikatua zabaldu du salatzen egoiliar modalitateak “praktika arrazista, kolonial eta, ondorioz, faxistak” betiketuz dituela: “Jarrantzen dugu ikusezin, esplotatuak, baztertuak, deshumanizatuak, gizarte eta legegaldi baten aldetik, nahiago dutenak bere pribilegioen erosotasunetik beste alde batera begiratu eta emakume migratu eta arrazializatu gorpuzak berenganatu zaintza sistema arduragabe bati eusteko”. Funtz putreek eta enplegu-enpresak berenganatua, gogoratu dutenez.

Zer lotura dauka *internen* egoerak armagintza-aren industriarekin? Dena, Palestinako genozidioak eta otsoaren ehizak bezala (ikusi pasa den asteko zutabea). Ekonomialari feministen hitzetan, kapital-bizitza gatazkaren adierazle garbiak dira. Ez da bakarrik batzuek zaintzen dutela beste batzuek suntsitu nahi duten mundua. Suntsiketa prozesu horiek kondentzen dituzte emakume migratuak gure kaka garbitzera. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

